

# ZMA

ZORROTZ MORROTZ

52. zenbakia 2018ko UZTAILA

## BENIGNO SÁENZ

“ZORROZA. HISTORIA DE SU FUNDACION Y OTROS  
ACONTECIMIENTOS” LIBURUAREN IDAZLEA

AUZOKA KOMUNITATE ZENTROA



# Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea

48013 Zorrotza

Tel. 946551773

Sakelakoa. 691218922

E-mail: [valerio.merino@allianzmed.es](mailto:valerio.merino@allianzmed.es)

**ERRAZ  
HURBIL  
ORAIN** 

# Kutxabank Auto Mailegua kolore guztietakoa



...Imajinatzen duzu auzoa  
merkataritarik gabe?

**ESKAINTZARik ONENA  
ZORROTZAtik  
IRTEN BARIK**

**Berton  
kontsumitu**



## Auzoaren onurak balioan jarri: Zorrotza gozatu ta bizi.

Aurten ere, Zorrotza Gozatu eta Bizi ospatu dugu ekainean. Ekintza ugari antolatu dira, aipagarriena ekainaren 16ko Zorrotza Eguna. Urte batzuk igaro dira ekimen hau Auzo Mugimenduari bururatu zizagunetik Zorrotzak daukan onura guztiak, gutxi ez direnak, balioan jartzeko.

Beste aldetik, lanean jarraitzen dugu auzoaren hobekuntzarako egunean eguneko gai zehatzetan eta guretat gai estrategikoak edo garrantzitsuenetakoak direnetan: FEVEko geltokiaren lurperatzea, elkarbizitza, giza-hezkuntza proiektua, belaunaldiarteko proiektua, kutsadura eta garraioa.

Aurreratu behar da datorren urtean Auzo Elkartean eta Auzo Mugimenduaren 50 urteurrenaren isla duina izan dadila lanean garela. Bukatzeko, Jai Batzordeak aurtengo Zorrotzako Jaietarako programa prestatzen hasi dela aipatu nahi dugu.

Beno, hau guztia eta gehiago... Ez da gutxi!



### HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz



**Zorrotzako kultur aldezakaria**  
52. zenbakia. 2018ko uztailea

Argitaratzen du:

**Zorrotzako Euskal Txokoa**


AEK euskalategia

**Zalbidea, 7 behea**

**48013. Zorrotza. Bilbo**

Emaila: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

 [facebook.com/ZorrotzMorrotz](https://facebook.com/ZorrotzMorrotz)

 [@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

**Koordinazioa:** Aitor Marín

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**

- Ibai Barrios
- Aina García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratxe Pérez
- Zuriñe Vila

**Zuzenketak:** Iñigo

**Langutzaileak:**

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saúl Kurto

**Inprimaketa:** Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukien erantzule bakarra



Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak  
Bazkariak eta afariak (erreserbatu behar da)  
Aroa onak, konbinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao



Zalbidea estrata, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
[info@aringraf.com](mailto:info@aringraf.com)

## Eraso berriek gaitzotu egin dute auzoko elkarbizitza-egoera makala



Igor Gutiérrez

Maiatzaren 23an andre bat jipoitu zuten Renfeko tren geltokian, lanerako bidean zihola. Gizonetako bati bere jarrera zakarra aurpegi-ratu eta hark erasotuz erantzun zion. Berehala, berria auzora hedatu eta sare sozialak sutan jarri ziren, izan ere, azken hilabeteotan elkarbizitza arazoak ohiko egiten ari dira. Gutxi balitz, ekainaren 17an eraso berri bat gertatu zen Usanditzaga musikaria kaleko Gernika Doner Kebab jatetxean. Eskaria ordaindu nahi ez zuten bost pertsona gogor ol-

dartu ziren jatetxea ixtear zeuden tabernarien kontra, eta tabernako atean aparkatuta zuten kotxetik ateratako hainbat makil eta egurrezko batez armatuta, tabernariak jipoitu zituzten eta kutzako dirua lapurtu zuten. Tabernariak ospitalera joan behar izan zuten eta hor bertan, eskuan izandako zauriak sendatzera joandako erasotzaileetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak.

Elkarbizitza-arazoak aspaldiko kontua dira Zorrotzan. Auzo Elkartearen ustetan, egoerak okerrera egin du azkenotan. Azken erasoaren ostean, eraso gaitzesteko elkarretaratze batera deitu zuen eta argitaratutako idazki batean Udalaren erantzukizuna azpimarratu eta arazoaren aurrean entzungor egiten ari dela publikoki salatu du. Zehazki, baliabideak mahai gainean jartzeko eskatzen dute, batez ere Gizarte Ekintzari eta Segurutasunari dagokionez. Hiiz batez, degradazioari aurre egiteko erantzun egoki eta integrala aldarrikatzen dute, udal sail ezberdinen lan bateratua eskatuta.

## Goi-mailako kultur emanaldiak Alazne Lopezen oroimenezko bigarren ekitaldi arrakastatsuan



Argazkia: Mikel Martínez

Karlos Rodríguez

laz bezala goi-mailako emanaldiez gozatu ahal izan genuen Zorrotzan, Auzo Elkarteak, Alazneren familiak eta lagunek antolatutako ekitaldi ederrean. Izan ere, hainbat musikaririk eta dantzarik beren artea eskaini zieten kiroldegiko hockey-pistara bertaratu ziren 650 bat ikusleri. Besteak beste, bertsolaritza, euskal dantza, pop-rock musika, akordeoi orkestra, pianista, kantu lirikoa eta mota askotako dantza izan ziren ekitaldiaren osagarriak.

Ekitaldien arrakasta ikusita, antolatzaileak dagoeneko lanean jarri dira datorren urtekoak gutxienez orain artekoek lortutako mailari eutsi diezaion.

# FEVE lurperatzearen aferak mesfidantza eta mobilizazioen artean jarraitzen du

Igor Gutiérrez

FEVEko geltokia lurperatzearen auziak ez du aurrera egiteko plantarik, momentuz. Erlojua otsailean gelditu zen: orduan, alkatearen eta sustapen ministroaren artean obrak erdibana ordaintzeko hitzarmena sinatuko zutela iragarri zen, baita martxoan egingo zela ere. Baina oraindik ez da akordio horren arrastorik eta berriki Espainian gobernu aldaketa egon denez, atzeratzea litekeena da.

Bitartean, auzoak mobilizatzen jarraitu du. Batetik, maiatzaren 9an, beste manifestaldi batek bostehun bat lagun batu zuen. Eta bestetik, ekainaren 16an, Zorrotza Egunaren baitan, Auzo Maratoia egin zen, bi tren pasaguneen arteko ibilbidea 42 km osatu arte errepikatuz. Apika, lurperatzearen borroka



maratoi baten antza hartu du: helmuga urrun ikusten da baina aurrera egitea besterik ez dago hara iritsi nahi bada.



Argazkia: Garras JR denda

## 1000 euro bi ordutan gastatzeko!

Urtero Zorrotza Gozatu ta Bizi programaren barruan Laguntasuna Dendarien elkarteak zozkatzen duen bi ordutan gastatu beharreko 1000 euroko saria irabazi zuen Mari Carmen Sobradok. Horretarako zeukan denbora urria ondo aprobetxatu zuen, eta oso laguntzaile bereziekin batera, auzoko hainbat dendatatik pasa zen sari eder hori gastatzeko. Zorionak!



**ZORROTZA  
HAZI  
ARAZI**



**ZORROTZAKO BATZOKIA**  
Erreserbetarako telefona: 94 465 46 15  
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)

## Giro ederrean ospatu zen Fray Juan kaleko I. Putxera Eguna



Zorrotz Morrotz

Ekainaren 9an ospatu zen lehendabizikoz Fray Juan kaleko Putxera Eguna. Kale horretako hainbat tabernak bultzatutako ekimeneko lehia-ketara 11 putxera aurkeztu ziren, eta Bar Zorrotzakoa izan zen hoberena oso lan zaila izan zuela aitortu zuen epaimahaiaren aburuz. Oso giro ona sortu zen eta antolatzaileek datorren urtean errepikatzeko asmoa agertu zuten.

Euskal Txokoaren babesba izan zuen ekitaldiak eta elkarteko hainbat kidek azaroan egingo den "Euskaraldia. 11 egun euskaraz" ekimena aurkezten aritu ziren bazkarian.

## XXII. Ipuin Lehiaketaren sariak eman dira

Parte hartzea nabarmen igo da aurten eta 118 ipuin aurkeztu dira orotara. Ohiko sarituez gain, aipamen berezi pare bat egin nahi izan du epaimahaiak.



Zorrotz Morrotz

Zorrotzako Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira San Juan bezperako jaian. Bere parte-hartzea eskertzen zuen opari bana jasota zuten jada aurretik parte hartzaileek, baina horrez gain, lehiaketan aritutako idazle gazteen lan nabarmenenak saritu ditu epaimahaiak. Aurten gainera epaimahaiak lan itzela izan du: 120ipuin

jaso dira guztira, eta nabarmendu behar da idazleen maila. Izan ere, DBH eta Batxilergoko ikasleen artean, saririk jaso ez duen aipamen berezi pare bat egin du epaimahaiak. Hona hemen beraz, sarituak eta aipamenak:

### 12 urtetik behera:

- 1. saria: Liher Urkiza Sánchez. (60 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: Erlantz Lekue Furundarena. (Euskal mahai-jolasa).

### DBH eta batxilergoko ikasleak:

- 1. saria: Onintza Ferrero Iglesias. (100 €ko bonoa ELKAR dendetan gastatzeko).
- 2. saria: Izaskun Ruiz Viqueira. (Euskal mahai-jolasa).

- Aipamen berezia 1: Iraitz Gómez Martín.
- Aipamen berezia 2: Naroa Ceballos Pérez.

Zorionak sarituei eta mila esker parte hartzaile guztiei!



## Usanditzaga musikaria

Kale hau Zorrotza Kastrexana errepidea eta FEVEko trenbidea artean dau, Sanmiguel auzu-nearen parean eta autobidearen pean... Musikari batentzako zarataz inguratutako kalea... Gainera auzoko kale bakarra urtekerarik ez dekona.

Jose Maria Usanditzaga (1887-1915) gipuzkoarra oso gazte hil zan. Bilbon, emon zeban bere lehenengo antzerki lana, "Mendi mendiyán" 1910an. Lau urte beranduago ospe handie hartu zeban Madriren "Las golondrinas" zarzuelagaz. 1915ean "La llama" opera atera zeban, luze barik hil zan. Idatzi zebazan lan txikietan bere ikusten da haren balioa.



*Bodegón*

Abaro estrata 3  
(Omega galeriako sarrera)

**ibarretaluxury**  
OPTICA ★

GOI-GAMAKO  
**2 BETAURREKO  
PROGRESIBO**

**245€**

Zorrotza  
C/ Estrada de Abaro, 5  
Ifi: 944 27 40 80

\* Graduazioren menpean. Zilindrorako -2 eta esferarako +-4.  
Pertsona berarentzat eta graduazio bera bada.

RPS: 96/13

**TABERNA  
INDARRA**



Abaro estrata, 10



## AGUSTÍN MATO

**Jaioterria:** Melide (A Coruña)

**Noiztik:** 1999tik

**Adina:** 40 urte

**Lanbidea:** Igeltseroa.

Galiziatik lan bila heldu zen Agustín gurera duela 21 urte. Egun, bere familia hemen sortu du, eta Zorrotza sentitzen du bere etorkizunerako bizileku

“Zoritzarrez euskal ohiturak eta kulturak galduz doaz. Auzoko egunerokotasunean presentzia handiagoa izan beharko lukete”



**Testua:** Zuriñe Vila eta Naroa Peña

**Argazkiak:** Naroa Peña

### Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

1997. urtean, 19 urte nituela, lan bila etorri nintzen. Lana aurkitu nuen eta pixkanaka-pixkanaka nire bizitza hemen sortu nuen. Hori dela eta, 21 urte beranduago hemen jarraitzen dut.

### Zer da hemen gehien gustatzen zaiduna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana da jendearen arteko harremanak eta kaleko giroa. Zorrotza herri bat bezalakoa da. Auzokideok artean elkar ezagutzen dugu eta harreman politik sortzen dira. Gutxien gustatzen zaidana: euskal kultura eta ohiturak ez direla ikusten

auzoko egunerokotasunean. Pena da baina nire ustez euskal ohiturak eta kultura pixkanaka galtzen doaz, eta gure errua da. Bizitzako egunerokotasunean hauen presentzia handiagoa izango balitz umeak ere horretan murgilduko lirateke eta lortuko genuke euskal kulturak, euskal musika tradizionalak, dantzek eta txistua adibidez, geroz eta jarraitzaile gehiago izatea.

### Galiziako zeren falta sumatzen duzu sakonen?

Familiaren falta da sakonen sumatzen dudana. Azken finean hona ni bakarrik etorri nintzen, nire guraso eta neba-arrebak bertan daude, eta nahiz eta askotan joan eta harremanari eutsi, bueltatzen naizenean konturatzten naiz aldi batetik bestera gauzak galdu

egin ditudala: ospakizunak, egoera kaskarrak...

**Zure ama hizkuntza galegoa izanda hemen galegoz hitz egiten duzu zure egunerokotasunean?**

Ez, egunerokotasunean Zorrotzan galegoa ez dut erabiltzen, baina egia da ama hizkuntza dudala.

**Badakigu zure semeek euskara dakitela, zerbait irakatsi dizute?**

Gutxi... "karkar." Hitz solte batzuk badakizkit baina elkarrizketa bat izan ahal izateko, ez.

**Askotan Gaztetxe aurrean dagoen parkean gaita jotzen ikusi zaitugu. Orain badakigu talde batean jotzen duzula. Nola ezagutu zenuen taldea?**

Gaita txikitatik jotzen dut. Gero, nerabezaroran, jotzeari utzi nion eta jada Zorrotzan nengoela, ez dut zehazki gogoratzen Zorrotzako jaietan edo Zorrotza Egunean batean, Compostela tabernan talde bat ikusi nuen gaita jotzen. Haiengana hurbildu nintzen eta nik ere gaita jotzen banekiela esatera hurbildu nintzen, nahiz eta hamar urte neraman jo gabe. Masustegiko eskolan ostiralero entseatzen zutela esan zidaten eta entsegu batera joatera gonbidatu ninduten. Hara joan nintzen eta gaur egun arte. Horrez gain, Autonomia kalean dagoen "Galizia etxean" ere egon nintzen gaita jotzen bi urtez, baina gaur egun soilik "Os Agarimos" taldean jotzen dut eta Euskadiko Galizia Egunean, Erdi Aroko azoketan, herriko jaietan.... parte hartzen dugu.



**“ Hemen lana daukat eta oso gustura nago. Oporretarako leku finkoa izango da Galizia, baina bizitokia, Zorrotza da ”**

**Etorkizun batean Galiziarra bizitzera bueltatzeko asmoa duzu?**

Ez dut uste. Nire bizitza Zorrotzan daukat, emaztea Zorrotzako da eta semeek hemen daukate bere bizitza osoa. Nik hemen lana daukat eta oso gustura nago, beraz, uste dut Galizia oporretarako leku finkoa izango dela, baina nire bizitokia Zorrotza da.

**Jai-Alai**  
kafetegia



Abaro estrata, 12  
94 490 12 59



**Taramona**

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12

**cafe txinbo**

*Espezialitateak:*  
Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estrata, 10  
Tel. 94 608 85 74

## AUZOKA KOMUNITATE ZENTROA

# Auzotik eta auzoarentzat egindako kudeaketa



Aspalditik amestutako proiektua dugu Auzoka Komunitate Zentroa. Iragan urteko urrian ireki zituzten frontoiari atxikita dauden lokalak eta urte bukaeran egitasmoaren inaugurazio ekitaldia egin zuten. Auzoa egiten eta eraikitzen jarraitzeko pauso oso garrantzitsua dudarik gabe.

**Testua:** Ibai Barrios  
**Argazkiak:** Aitor Marín

Auzoan diharduten gizarte-eragile eta taldeek euren ekimenak burutzeko espazioak behar zituzten. Zorrotzako egoera sozial eta kulturala aspalditik aztergai egon da eta beharri-zanak asetzeko funtsezkoa zen eragile hauek guztiak elkartzeko topalekua izatea. Bada, frontoiari atxikitako lokalak eraikitzen hasi zirenean instituzioekin berriro harremanetan jarri ziren gizarte-eragile eta taldeak aspalditik zertoren Komunitate Zentroa sortzeko proiektua berreskuratu eta martxan jartzeko proposamena botatzeko. 2017ko Zorrotzako jaietan lokalak ireki eta abenduaren 15ean inaugurazio ekitaldia burutu zuten. Auzoka jaio zen.

Gaur egun, bi pertsona daude lanean: Sergio Chamorro eta Omara Carricoba gazteak. Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 22:00etara lanaldi osoa erdibana egiten dute, baina

lehen aipatutako kudeaketak malgutasuna ematen die zentroa asteburueta eta data berezietan erabiltzeko. Beraiek ez ezik, auzoko elkarte eta taldeek ere kudeatzen dituzte espazioak borondatezko lanaz, eta bi pertsona hauen eginkizuna “espazioak banatzea eta batez ere laguntza eskaintzea da”.

Auzoari eta zentroaren kokalekuari izena ematen dio proiektuak. Auzoka aukeratu zuten Azoka parkea eta zentroa elkarren alboan daudelako. Zorrotzako parkean betidanik bizitza handia izan duen espazioa dugu eta “auzokideok momenturik goxoenak hemen bizi izan ditugu”. “Auzoz auzo” edo “auzoa eraikitzen” leloarekin logoan U hizkiaren barruan dauden koloretako borobilek probetaren antza hartzen dute, proiektua ekimen komunitarioen laborategi batekin erkatzen delarik. Horrela, indar handia hartzen du izenak, “zentroaren eta proiektuaren nortasuna” finkatzen duelarik.

Hau guztia aurrera eramateko hitzarmen bat sinatu zuten Bilboko Udalarekin eta "beste auzoentzako eredu izatea" nahiko lukete. Kudeaketa mota hau ez da batere ohikoa Bilbon. Prozesua ez da batere erraza izan eta hasieran finkatutako helburuak lortzen ari dira pixkana-pixkanaka. Momentu honetan WiFi sarea instalatzen ari dira, ekimenak aurrera eramateko funtsezkotzat jotzen zutena. Ikasturtea bukatu baino lehen doako konexioa izango dute eta Udalaren azpiegiturari esker parkeko eremu batera ere zabalduko da. Baina, bestalde, badago egiteke dagoen beste gauza bat, zentroaren erabilpena asko mugatzen duena: musika taldeek euren espazioa malgutasunez erabiltzeko guztiz beharrezkoa den intsonorizazioa. Espero dute aurtengo udan burutzea.

Zorrotzarentzat aurrerapauso itzela izan da Auzokaren agerpena, arlo guztietan gainera. "Aurten auzoaren bizitza soziala nola aldatu den ikusi dugu" azpimarratu dute. Alboan frontoi estalia izateak asko erazten du urtean zehar antolatzen diren ekintzak aurrera eramatea. Orain edozein ekitaldi presta daiteke beldurrik gabe, eta azpiegitura apur bat izanda antzerki saioak edota kontzertuak egin daitezke.

Udari begira, hurrengo hilabeetan "Eguzkitan blai" proiektua eramango dute aurrera, "frontoiaren atzealdea dinamizatzeko". Mahaiak, jolasak, eta abar egongo dira eta egunen batean zuzeneko musika ekartzea ere espero dute. Azpiegiturari dagokionez, Barruti Kontseiluari beharrezko materiala eskatu diete "beti alokatzen ez ibiltzeko".



## **Aurten auzoaren bizitza soziala nola aldatu den ikusi dugu. Orain edukiz betetzea eta hura zaintzea izan behar dugu helburu nagusi**

Azkenik, zentroa bisitatzeko eta antolatzen diren ekimenetan parte hartzeko gonbita egiten digute. "Edukiz betetzea eta hura zaintzea" jotzen dute helburu nagusizat. Bestalde, sare sozialetan eta [www.azokoa.eus](http://www.azokoa.eus) webgunean topatu daiteke informazio guztia eguneratuta. Adi egon eta animatu!!

*Restaurante*  
**Arsenio**  
Tfno. 94 497 10 03  
Clara Campoamor, 6  
48013 BILBAO

*Pintxo askotarikoak*  
*Menu bereziak (enkarantz)*  
*Eguneko menua*

**amc**  
diseinua

**Diseinu grafikoa:**  
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,  
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

[www.amcdiseinua.net](http://www.amcdiseinua.net)

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • [aitor@amcdiseinua.net](mailto:aitor@amcdiseinua.net)**

**BENIGNO SAÉNZ “BENI”:** *“Zorroza. Historia de su fundación y otros acontecimientos”* liburuaren egilea

**“ 80 urtean gertatutakoa liburu batean biltzea ez da batere erraza. Hainbeste oroitzapen dira! ”**

88 urteko “untziola zaharren ondoan jaiotako gutxien horietako” zorrotzerra da Benigno. 14 urterekin auzoan bertan ere hasi zen lanean Talleres Omega lantegian, eta behe mailatik pertsonal burua izateraino heldu zen lantegia itxi arte. Erretiroa hartu ondoren eta txikiteoan lagunekin sortzen ziren eztabaidak argitzeko asmoz, auzoari buruzko datuak eta pasadizoak biltzen hasi zen orain dela urte gutxi batzuk. Datu horiek idazten hasi zen: liburu bat osatzeraino! Auzoko memoriaren lekuko paregabe hau bere argitaratze-balentriari buruz aritu zaigu eta bere bizitzako hainbat pasadizo ere kontatu digu.

**Zorroza. Historia de su fundación y otros acontecimientos** liburuaren egilea zara. **Nola sortu zen liburu hau idaztearen ideia?**


Erretir0a hartu nuenean, txikiteoan edo aisialdian, askotan eztabaidak sortzen ziren auzoko gai eta gertakari batzuei buruz. Adibidez noiz itxi zen Txinbo xaboi lantegia, noiz gertatu zen beste hori... Ba hori zela eta, modu batez edo bestez hasi nintzen ordenagailuan auzoko historia idazten. Baina gero eta gauza gehiago ateratzen zitzaizkidan... Bata eta bestearekin hitz eginda, are datu eta iradokizun gehiago idazkian plazaratzeko... Eta oso idazki luzea atera zitzaidan.

**Eta horrek liburu itxura eman zion, baina inprimatzea zaildu zuen, ezta?**

Bai, oso garestia ateratzen zitzaidan eta ale asko egitea eskatzen zidaten. Nik 50 bat edo inprimatu nahi nuen! Hainbat aurrezki kuxatara joan nintzen finantziazio bila, udaletxera ere jo nuen... Baina ez nuen laguntzarik lortu. Azkenean, inprenta bat daukan "Sociedad Cultural Amigos de Zorroza" elkarteko kide batek liburu herrikoiak egiteko zuten promozio baten berri eman zidan. Zirriborroa pasatu nion, eta argazki batzuk kenduz eta apur bat laburbilduz, liburu bakoitza saldu dudana 5 euro inguruko kostuan egitea lortu nuen.

**Eta nola banatu dituzu? Non saldu dira?**

Ba ahoz ahokoari esker batez ere. Gehienak zuzenean nigana etorri dira. *Don Patuco* dendan, eta *el 10 de Fray Juan* edo *Kupela* tabernetan ale batzuk utzi nituen eta hara ere erostera bidali ditut eskatzaile batzuk. 100 aleko bost argitaraldi egin ditut, eta orain momentuz ez dut gehiagorik egingo. Eskatzen duenari, telefono zenbakia hartzen diot eta gutxienez beste 50 eskari biltzen baditut, ba agian beste argitaraldi bat egin daiteke, baina ez dut egingo gero etxean saldu gabe izateko... Lege-gordailua atera nuenean, ale batzuk eskatu zizkidaten eta Zorrotzako eta Bidebarrietako liburutegietan liburu bana irakurgai dagoela uste dut. Ez dut dirurik atera. Are gehiago, galdu dudala esango nuke. Adibidez, jada Zorrotzan bizi ez diren batzuek liburua eskatu didate, eta posta bidez bidaltzeak liburua kostatzen duen baino diru gehiago da! Baina jendearen interesa piztu izanak asko poztzen nau.



**“ Lege-gordailua atera nuenean, ale batzuk eskatu zizkidaten eta Zorrotzako eta Bidebarrietako liburutegietan liburu bana irakurgai dagoela uste dut ”**

**Zu ere liburutegietan, udal eta foru artxibotetan datuak hartzen denbora asko eman duzula badakigu... Zenbat denbora behar izan duzue liburua argitaratzeko?**

Urte pare bat gutxi gorabehera... Orain dela lau urte edo hasi nintzen horretan lanean, 84 urte nituela. Ez pentsa hau aspaldiko gauza denik! Baina, zoritxarrez, oso berandu hasi nintzen, eta honen zergatia azalduko dut: gazteagoa nintzenean Zorrotzakoak izan ditudan senideei gauza gehiago galdetu ez izanaren pena gelditu zait. Bizipen eta gauza asko galdu dira dagoeneko, baina momentuan ez zitzaidan galdetzea bururatu, edo ez nien garrantzirik eman horrelako testigantzei.



“ Ahoz ahokoari esker baino ez, baina argitaratu nituen 100 aleko lehenengo bi argitalpenak di-da saldu ziren ”

**Baina elkarrizketa ugari ere eginak dituzu honetarako. Nola hartzen zuen jendeak liburu bat egitearen ideia?**

Beno, hasierako nire ideia ez zen liburu bat argitaratzea, baizik eta lauzpabost detaile bildu jubilatuentzat...

**Orduan, emaitza ikusita, zer nolakoa izan zen jende horren erantzuna?**

Ba argitaratu nituen lehenengo 100 liburu horiek di-da saldu ziren. Ahoz ahokoari esker, 100 ale gehiagoko bigarren berrargitalpena ere oso azkar desagertu zen.

**Liburuan, datu pilaz aparte, agertzen diren hainbat pasadizo eta kontakizun zure gogoetak direla suposatzen dut... Guda zibilaz ere mintzatzen zara.**

Bai, nik hemen bizi izan nuen. Kartzelan aita izan nuen, eta Venezuelara ihesean joandako osaba-izebak ere izan nituen. Horiek Franco hil ostean bueltatu ziren eta zer edo zer kontatu zidaten, baina aitak gogoeta horiek guztiak ahaztu nahi zituen eta ez zuen gustuko horretaz aritzea. Esaten zuen bakarra zera zen: oso gogorra zela goizaldean gizon bat orrialde batekin etortzen ikustea eta jezarrita itxarotea ea

zure izena irakurtzen zuenentz... Umetxo gogoetak badituz gerraz: La Teja aldean zegoen bolborategia, Molinos Vascos lantegia aterpe eta intendentzi biltegia izana, egondako bonbardaketak...

**Eskolari buruzko kapituluak Zorrotzan euskaraz egiten zuten familiak bazirela aipatzen duzu, baita guda ostean hizkuntza gogor jazarri zela ere eskolan.**

“Eskerrik asko” edo “agur” bat esanez gero, gogor zigortua izateko arriskua zegoen. Batez ere, Falangeren alkandora urdina janzen zuten andereño eta maisu maltzur banaren eskutik. Askok jazarrita bazegoen ere, euskaraz zekitenak bazeuden, eta etxean egiten zutela badakit, baina gehienetan ezkutuan, auzokideek entzun eta salatu zitzen beldur.

**Eta liburuan agertzen diren argazkiak ere zureak ere dira?**

Argazki zaharrak biitzen lehenago hasi nintzen. Duela urte batzuk, Zorrotzako liburutegia inauguratu zenean, Auzo Elkarteari utzi nizkion argazki zahar batzuk erakusketa bat egiteko. Horrela, ezagutarazten hasi ziren. Orain jada interneten daude gehienak.

**Liburuan artikulu oso bat erabili duzu horri buruz aritzeko, baina irakurri ez duenarentzat eta laburbilduz, zelan aldatu da auzoa laurogei urte hauetan?**

Horri buruz hamaika pasadizo topatu daitezke liburuan. Kapitulu hori erdi txantxetan idatzi nuen. Liburua oro har serioegia iruditzen zitzaidanez, modu barregarri batez bukatu nahi izan nuen, baina hor aipatzen den guztia egiazkoa da! Aldaketak itzelak izan dira. Elizan, ohituretan, janzkerak... Adibidez, gogoan dut 14 urte betetzeko irrikitan nengoela praka luzeak eraman ahal izateko. Gaur egun zahar gehienek praka motzak janzten dituzte!

**Eta gainera, Sociedad Cultural Amigos de Zorroza elkarteko partaideaz bazara...**

Bai. Garai horietan, 60ko hamarkadan, kuadrilla bat batu ginen, hasieran etxebizitzak egiteko kooperatiba bat sortzeko asmoz... Elizako sakristian biltzen ginen eta egunen batean, gaur egun gure bilerak, bazkariak eta abar egiteko dugun lokala salgai zegoela jakin genuen. Eraikitzaileak pisuak saltzeko erabiltzen zuen bulegoa zen... Ez geneukan diru askorik, baina bai hau erosteko bidean sarrera emateko behar zen adina. Hemen hasi ginen biltzen ondo pasatzeko eta Zorroztan zegoen guztian parte hartzeko asmoz: Jai Batzordean, Zorroza Futbol Clubean, eta abar... Jubilatuentzako San Migel bazkaria antolatzen genuen... Ni adibidez elizan nengoen sartuta: garbitzen zuen emakumearen aseguru sozialak egiten nizkien... Elkartean txango ugariak ere antolatuak ditut eta gaur egun askotan biltzen gara lokalean: bazkaltzeko, hitz egiteko... Elkarrekin ondo pasatzeko.



**LABURREAN**

**Zorrotzako zure txokorik kuttunena?**

Zorrotza Futbol Club ikustea oso gustukoa dut, eta auzoan zer edo zer badago, joaten saiatzen naiz... Auzoko gertakariei adi egoten naiz, baina eguzkitan egoteko tokirik gustukoenik ez daukat. Zorrotza gustukoa dut oro har.

**Auzoan bizi izandako oroitzapenik go-goangarriena?**

Gogoan dut nire lehenengo jaunartzea. Guda zibila urteetan ez zen jaunartzerik egin eta guda osteko lehendabiziko horretan kuadrilla handia egon ginen. Mariñelez jantzita ume bakarra egon zen! Kar, kar! Beste guztiok etxean geneukan arropa arrunta jantzi behar izan genuen.

**Zaletasunik?**

Kirola. Oso gustukoa izan dut beti kirola egitea. Mendira perretxikotan joatea gustukoa nuen, txirridula, ... Edozein kirol. Orain mantentzeko gimnasia egitea dut gustuko eta telebistan jartzen duten guztia-aren zalea naiz: futbola, tenisa, eskupilota...



**BAR VENECIA**

**Espezialitateak:**  
Kafea, tortilla, tortilla beteak  
eta bestelako pintxoak

**Abaro estrata 10**

**AUPA ATHLETIC**



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorroza  
Tlfno. 94 441 61 46



Tel. 94 441 62 75

## Minihanburgesa



**Osagaiak:** haragia, irina, tipula, gatza, arrautza eta ogia

Haragia, irina, tipula, gatza eta arrautzarekin nahasten dugu. Haragiari hanburgesa itxura ematen diogu eta frijitzen dugu. Ogia xerra moduan moztu behar da, eta hanburgesa ogi gainean jarri. Horren gainean gazta zatitxo bat eta hirugiharra jarriko ditugu. Bukatzeko, txapel moduan, arrautza txiki bat jarriko dugu.

On egin!

**Zailtasun maila:** Erraza

**Prezioa:** 1,50 euro

## MADNESS KAFETEGIA

**Zelbidea, 5 atzea. 48013, Zorrotza**

**Telefonoa: 94 441 62 75**

**Ordutegia: 9:00 - 23:00**

Afariak eta bazkariak enkarguz. Urtebetetzeak (hainbat menu) 6 euro ume bakoitzeko.



bertso poteoa



**POTEAREKIN, PINTXO BAT OPARI** 

**irailak 14 ostirala. 19:30ean**

**Aitor tabernatik**

**Fray Juan kalea • Zorrotza**

**Fredi Paia**

**Arkaitz Estiballes**

**Doinua: Habanera**

*Ekainaren hasiera  
dena goxo eta ezti  
ikasleontzat oporrak  
poza eragiteko aski  
amaitu eta gogo  
jarri udatiar amesti  
hondartza eta zerbezak  
hamaika gozamen asti  
ilunabarra sarritan  
bat liluratzeko azti  
eguna izerditan blai  
pasatuz goi eta azpi  
baina ortzi nola ez den  
gure herrian bidazti  
oraintxe jakin nahi nuke  
non sartu ote haiz eguzki?*

**Doinua: Agur sagar beltzeran.**

*Futbol mundiala dago  
guztion ahotan  
izan ohi ez dena ere  
futbolzale plantan  
baloia dago denon  
buru-eskematan  
eta fijaszen gara  
taldeen estanpan  
euskaldunok gabiltza  
taldearen faltan*

Asier Urkiza



Bere seme elbarria hartuta, garai batean bertan behera utzi zuen Jean-Marcengana joango da Irati, barruko harra isildu nahian. Edurnek bikotea eta lana galdu ditu, eta mareak hondartzan utzitako enborrak erreskatatzen ditu eskultura bihurtzeko, kaosa ordenatzeak bere bizitzari zentzua emango diolakoan. Bertak desesperatutako jendearen telefono deiak aditzen egiten du lan, baina nori kontatuko dizkio berak bere minak? Hiru emakume protagonistak, hiru ipuinez osaturiko triptikoa, egungo gizartea astintzen duten hainbat gai eta gaitz erdigunean jartzen dituen: bakardadea, menpekotasunak dituztenen zaintza eta horrek ekar dezakeen sakrifizioa, bizitzari zentzurik aurkitu ez eta suizidioaren aukera... Zikinkeriak pilatu ohi diren alfonbra azpia altxatuko bagenu bezala, agerian geratuko dira ate osteko sekretuak, nori kontatu ez dakigun aitortzak, isilpeko erruak.

**Governors:****Z.E.R.O.** (Baga-Biga musika ideiak) 2017

Urtebeteko geldiuenearen ostean, iaz itzuli zen Arrasateko taldea oholtzara. Eszenatokietara soilik ez, diska berria ere (estudioko bosgarrena) kaleratu zuten 2017ko azaroan. Azken urteetan ohikoa izan den moduan taldearen egiturari aldaketak egon dira, baina garai berri honi aurre egiteko indarberrituta bueltatu dira betiko taldekideak zein berriak.

Horren guztiaren emaitza "Z.E.R.O." izeneko lana dugu, non taldearen ziguilari eusten zaion. Betiko jarraitzaileak indarra eta melodia eskutik helduta datozela somatuko du baina taldekide berrien parte hartzea ere nabaria da diskoan. Dena den, eta nahiz eta hasierako entzunaldian buruan iltzaturik gelditzen diren kantak dauden, ez da erraz iristen den horietakoa. "Harro" izeneko abestia, esaterako, taldeak urteetan zehar landu duen estilo propioaren adibide garbia dugu, baina badaude beste batzuk, hala nola "1937" edota "Hezuraren kultura", taldera joera berriak ekarri dituztenak. Nahiz eta abesti onak dauden aurreko lanak gusturago entzun ditut, baina zuzenean berriro disfrutatzeko gogoz nabil, ikuskizun ederra eskaintzen baitute.

Ibai Barrios



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-baztegi propioa  
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2  
48013 ZorrotzaTel. 94 499 01 30  
www.mesonluna.es**AUTO ESKOLA  
KAIKU**Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfno: 94 427 88 10**Taberna  
AITOR**

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza  
Tel. 94 482 07 96



**Zure iritzia jakin nahi dugu.** Bidaliguzu zure artikulua [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!

# Hegoalde Tren Saihesbidearen eragina Zorrotzan.

Hamaika galdera - erantzun azpiegitura honi buruz.

## 1. Zertan datza Hegoaldeko Tren Saihesbidea (HTS)?

Proiektu hori ez da beharrezkoa. Lotura es-tua du Abiadura Handiko Trenarekin eta Santurtzin dagoen Bilboko Portuko merkantzien garraioarekin.

## 2. Zertarako eraiki nahi dute HTS?

Santurtziko Portutik merkantziak garraiatze-ko makro azpiegitura bat izateko. Baina diru-xahutze hutsa besterik ez da. Ez da beharrezkoa, ez da jasangarria eta porlanaren enpresariaren poltsikoak eta alderdi politiko batzuen kuxak loditu besterik ez du egingo.

## 3. Nondik nora eraiki nahi dute HTS?

Santurtzitik Bilbora. Lehenengo fase batean Serantes mendiko tunelaren (Bilboko Portuko merkantzien aterabidea) eta Olabeaga auzoaren arteko lotura egingo da.

## 4. Zorrotzatik pasako ote da?

Bai. Zorrotzako erdigunea errespetatuko du, baina Kadagua ibaia zeharkatzeko Zubiletatik Kastrexanara 505 metro luze eta 200 metro baino gehiagoko altuera izango duen zubibide erraldoi bat eraikiko dute.

## 5. Zer eragin izango du zubibide horrek?

3 eragin aurreikusten dira. Ingurumenaren gaineko eragina, paisaia-inpaktua eta kalte akustikoak (zarata jasanezina, 110 dezibelio-tara irits daitekeena).

## 6. Zenbat kostatuko zaigu?

Lehenengo fasea, Olabeagaraino, 400 milioitiko gora. Basauriraino doan bigarren fasea gehituta 700 milioi inguru.

## 7. Badago beste aukerarik?

Bai. Barakaldo Naturala herri plataformak orain dela gutxi aurkeztu dituenak. Renfeko C1 eta C2 lineak hobetzea eta egungo ibilbidea Santurtzitik Olabeagaraino oso-osorik lurperatzea.

## 8. Zorrotzako Renfeko geltokia ere lurperatuko luke aukera horrek?

Bai. Barakaldo Naturalaren proiektuan Zorrotzatik pasatzen den ibilbidea osorik lurperatuko litzateke, eta lurrazpiko geltoki berri bat eraikiko litzateke.

## 9. Beraz, zein da onena?

Zorrotzako auzokideentzat, dudu barik, Barakaldo Naturalaren proposamena.

## 10. Zergatik?

Ez dago ingurumen-inpakturik, bidaiarientzako azpiegitura berri eta merkantziak lurpetik garraiatuko dira, zaratak eta eragozpenak saihestuz.

## 11. Eta zer egin ahal dugu Zorrotzatik?

Informazio guztia lortu, irakurri eta zabaldu. Proiektua azaldu eta eztabaida piztu auzoan. Azken finean, Barakaldo Naturalak proposatzen duenarekin bat egitea, hau da: HTS GELDITU > EZTABAIDA SOZIALA EMAN > HERRI KONTSULTA BULTZATU

Has gaitezen.

Info gehiago:

<http://barakaldonaturala.blogspot.com/>

*Raul Méndez Urigoitia  
@rmurigoitia*

# Genero indarkeriaz

Genero indarkeriak emakumeen sexualitatea, jarrerak, gizarte rolak eta gorputzak kontrolatzea bilatzen du. Emakume guztiak eta egitura patriarkalaren eredu normatiboetatik kanpo dauden pertsonak antolaketa sozio-politikotik eta gizarte mailako erabakiak hartzen diren esparruetatik generikoki kanpo uzteko helburua duen indarkeria motari, estrukturala deitzen zaio.

Duela gutxi, botere judizialengandik sufrizten dugun indarkeria estrukturala azalean geratu da "La Manada"ren kasuaren sententzia dela eta. Agerian geratu da, nahiz eta emakumeek salaketa ipini, hainbatetan salatzerantz animatu dituen sistemak ez diela zertan babesa emango; gero eta diru gutxiago bideratzen dela genero indarkeriarekin bukatzeko eta genero berdintasuna sustatzeko; justizia erakundea, gizartea bezain

matxista dela eta komunikabideek emakumeen sufrimendua beste produktu bat bezala saltzen dutela, haien sinesgarritasuna zalantzan jarriz. Argi geratu den bezala, indarkeria zer den eta zer ez den, patriarkatuak berak erabakitzen duela. Eta patriarkatuak beti gizonezkoen interesak babesten ditu.

Gizonezkoen kontrako indarkeria ere gauza larria da, baina ezin da genero indarkeria bezala kontsideratu, honen eragitea ez baitago hauen generoak gizarte mailan duen irudian oinarriturik. Gainera, gizonezkoek sufrizten duten indarkeria, kasu gehienetan, beste gizonezko batzuek eragindakoa da eta beraien bikoteki-deengandik sufrizten duten indarkeria, honen portzentaia oso txikia baino ez da, emakumeetan gertatzen ez den bezala. Genero indarkeria gizartearen oinarrietan erroturik dago, eta hauek aldatu behar izango ditugu honekin bukatzeko.

*Iratze Pérez*



**!Kasi  
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,  
ikastetxe publikoetan eta  
Zorrotzatik irten gabe**



Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 48 75 • ☎ 94 442 48 75  
📧 sietecampas@gmail.com



Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 442 00 21 • ☎ 94 442 00 21  
📧 014159aa@hezkuntza.net



San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo  
☎ 94 439 33 34 / 688 861 374  
☎ 94 439 97 41  
📧 015078aa@hezkuntza.net  
[www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net](http://www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net)

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Erderez, "desigualdad de género" adierazpenak indar handia dauka, atzean duen eraketa teorikoa dela eta. Baina... nola itzuli beharko genuke euskarara: "genero desberdintasuna" edo "desberdinkeria" bezala?

Printzipioz, badirudi, desberdintasunak ez daukala konnotazio edo kutsu negatiborik, berez. Bereizkeriak edo desberdinkeriak bai, ordea. Lehenengoa, diferentzian oinarritzen da: aski ezaguna eta onartua da arrek eta emeek, hau da, gizon eta emakumeek

giza espeziean, desberdintasun biologikoak badituztela. Baina sozialki eta kulturalki eraturako desberdintasunak, emakumeak eta eredu patriarkaletik kanpo dauden pertsonen gutxiesten dituztenak\* adierazteko, bereizkeria edo desberdinkeria erabiltzea hobe izango genuke.

\*Tradizionalki, genero bereizkeria emakume eta gizonen arteko desberdintasuna eta lehenengo diskriminazioa azaltzeko balio izan badu ere, gaur egun, LGTBTBI+ pertsonen diskriminazioa azaltzeko zabaldu den terminoa da.

## SALAKETA ARGAZKIA



### Zulo bat kaleargian

Oxidoa hain da kapritxosoa, kale argiaren oinarrian bertan zuloa egin baitu. Noski, hori ez da egun batetik bestera gertatzen. Gure auzoko hainbat gauzatan legez, denbora pasatzen uzteak eragiten du kalterik gehien.



Zorrotza Kastrexana, 7  
Telefona: 94 441 64 86

*Regalos*  
**Omega**  
*oparidenda*

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetalles.com

Iragar zaitez

**ZM**

ZORROTZ MORROTZ  
aldizkarian!

Euskara sustatu  
Zorrotzan!



Tarifak eta informazioa: [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com)

# Kilima, familientzako gune berria

Haur eta bere familientzako gune bat izango da, gurasotasun positiboan oinarrituta. Hau da, umeen beharrezan errespetuan oinarritutako gunea

Gure Lurrako hezitzaile taldeak Bartzelonara egindako bidaiaren batean sortu zen proiektu berri hau sortzeko asmoa, bertan komunitate proiektu ezberdinak eta oso interesgarriak ezagutu genituelako.

Honetaz gain, gure auzoko familien beharrei ere erantzuna ematea garrantzitsu ikusten genuen, askotan ditugun parkeak oso aproposak ez direlako gure etxeko txikientzat eta neguko egun hotzetan familientzat leku egokirik ez dagoelako.

Hortik abiatuta, Kilima izeneko gunea aurrera eramanez nahi genuen. Haur eta bere familientzako espazio bat, gurasotasun positiboan oinarrituta, hau da, umeen beharrezan errespetuan oinarritzen dena, beraien garapena sustatuko duten ekintzak aurrera eramanez. Besteak beste, atxikimendu lotura indartu, jolasaren bidez elkarrekintza ahalbideztu, gatazkarik gabeko komunikazioa bermatu... kontutan hartuz, betiere, familia bakoitzaren testuingurua.



# Kilima Zorrotza

Familientzako gunea - Espacio familiar

Ireki dagoen gunea izan dadin nahi dugu, hots, hainbat mailatan familia esku-hartzeari buruzko komunikazioa eta esperientzia-trukaketa helburu duen gunea. Espazio bat eskaintzeaz gain, deskribatutako filosofian oinarritutako tailerrak eta jarduerak eskaini nahi dizkizuegu (diziplina positiboa, amagandiko edoskitzea eta elikadura, ohiturak eta mugak...)

Kilima, datorren ikasturtean jarriko da martxan, Auzokan (frontoiaren atzealdean dauden lokal berrietan) kokatuta egongo da eta parte hartu gura baduzue Facebook-en sortutako taldean sartu, emandako pausu guztien berri izateko: "KILIMA Zorrotza, familientzako gunea."

Datorren ikasturtean KILIMAN itzarongo zaituztegu



# VIA gráfica

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**



**ZORROTZA F.C.**  
kirolarekin,  
auzoarekin eta  
euskararen alde!



# ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,  
hanburgesak,  
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98



### Miriam

Horrelako dinamikek euskararen erabilpenari garrantzia ematen diote eta positiboa da. Euskaldunon eskubideak bermatzea ezinbestekoa da nire ustez.



### Sergio

11 egun euskaraz hitz egiteko prestatu den ekitaldia da. Beharrezkoa da, auzoko euskaldunok euskaraz hitz egiteko "lotsa" edo ohitura falta kentzeko.



## Euskaraldia:

Ba al dakizu zer den?  
Zer deritzozu?

Narrea Peña eta Zuriñe Vila



### Egoitz

Euskaraz mintzaten edo ulertzen dugun guztion artean euskaraz hitz egiteko 11 eguneko ekitaldia da. Hizkuntzarekiko ditugun ohiturak aldatzeko eta uste baino gehiagotan euskaraz komunikatzea posible dela konturatzeko baliagarria izango dela uste dut.



### Rebeca

Abenduan egingo den euskararen aldeko ekitaldi bat izango dela uste dut. Zorrotzar askok euskaraz jakin arren, gutxitan erabiltzen da. Ea hori aldatzerik dagoen honelako ekintzekin.



### Nerea

Bai, "11 egun euskaraz" ekimena. Oso ideia ona da: auzoko euskararen erabilaren erradiografia ikusi ahal izango dugu eta.

**EUSKAL  
PRESO ETA  
IHESLARIAK**



**ETXERA**

**GORA  
HERRIAI!**

**★ independentzia!  
SOZIALISMOA!**



**ASKABIDE**  
kultur elkartea  
**ZORROTZA**

# Bilbon euskaraz



**B**  
Bilbao

▶ [www.bilbaoeuskaraz.eus](http://www.bilbaoeuskaraz.eus)



## EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxa, zurekin euskaraz aritzea ez da apateko aukera bat, gure nortasunaren eta gure itaeraren berezko ondorioa baizik, izan ere, geurea zalintzea gustatzen zaigu, geure etzagari bereizgarriei eustea eta iraurarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko, izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

  
**LABORAL**  
kutxa

Euskarak 365 egun eduki ditzan,  
batzuk ahoa bizi, besteak belarriak prest,  
Zorrotzan ere probatuko dugu.  
Denbora daukagu prestatzeko.

# EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik  
abenduaren 3ra

## BATU EGINGO GAITU



[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)